

BERRIGARA

77. zenbakia

JARDUN ELKARTEA, Bergara

1992, Irailak 25

SAN MIGELAK
ANGIOZARREN
ASTEBUKAERAN


KALE GARBIKETA
GARBIL
ENPRESA
PRIBATUAK
BURUTUKO DU
DATOZEN SEI
URTEETAN

KIROLAK

SASKIBALOI
TALDE
NAGUSIAK
LARUNBATEAN
EGINGO DU
AURKEZPENA



**Bergarako elbarrituen
egoera aztergai**



kutxa

gipuzkoa
donostia kutxa



Udal Kirol Zerbitzua

92 - 93

GAZTE ETA EDADETUENTZAKO IHARDUERAK

IGERIKETA TENISA	✓ 20 ordutako ikastaroak ✓ 10 ordutako ikastaroak
MANTENIMENDU GIMNASIA	✓ Goiz eta arratsaldez, urte osoan zehar, hiru egun astean
AEROBIKA	✓ Arratsaldez, urte osoan zehar, hiru egun astean
JAZZ-GIMNASIA	✓ Arratsaldez, urte osoan zehar, bi egun astean

**3. ADINEKO
GIMNASIA**

✓ Arratsaldez, urte osoan zehar, hiru egun astean

UDAL KIROL ESKOLAK

KIROL ASKOTAKOA XAKEA	✓ 1.984 - 81 artean jaiotakoentzat
ATLETISMOA GIMNASIA ERRITMIKOA	✓ 1.986 - 81 artean jaiotakoentzat
ATLETISMOA BADMINTONA ESKUBALOIA GIMNASIA ERRITMIKOA IGERIKETA KARATEA PELOTA SASKIBALOIA XAKEA	✓ 1.980 - 77 artean jaiotakoentzat

INFORMAZIOA: Bergearako Udal Kirol Zerbitzuan. ☎ 76 39 42 - 3 - 4

BERRIGARA

Argitaratzailea:

Jardun Elkartea

Errotalde Jauregia, 20.570
Bergara

Tfnoa eta Faxa: 76 03 97

Babeslea: Bergarako Udala

Laguntzailea:

Eusko Jaurlaritza

Erredakzioa

Eneko Azkarate, Eduardo
Mendibil eta Miren Josu Arrazola

Maketazioa:

Eneko Azkarate eta Eduardo
Mendibil

Publizitatea eta harpidetak:

Miren Josu Arrazola eta Edurne
Arenaza

Tfnoa: 760397

Erredakzio-kontseilua: Iñaki

Eraña, Gorka Elorza eta Alex
Labaien

Kolaboratzaileak: Jose Angel
Mikeo, Estepan Plazaola, Miguel
Angel Elkorobereziabar, J. M.
Elexpuru, J. Oregi, A. Urzelai,
Mariipi Laskurain, Nerea Alzelai,
Ainhoa Lete, Jon A. Bengoa,
Mikel Lizarralde, Monika
Belastegi, Mikel Elkorobereziabar,
Aitziber Aretxaga, Ainhoa Bikuña,
I. Sorondo eta Leire Etxaniz.

Argazki laborategia:

B. Cantero, M. Leturia, J.A.
Eguren, J.I. Millan, J. Aguayo,
Jaime Garzia, Dani Santos, Patxi
Retolaza, Kifú eta Pol-Pol
Mendizale Taldea.

Komikia eta marrazkiak: Josu
Okina eta Antonio Arrillaga

Inprimategia:

Gertu Koop. E. (Zubillaga. Oñati)

Banaketa : Txantxangorri Taldea

Copyright:

BERRIGARA

Tirada: 3.000 ale

Lege gordailua: SS 50/ 91

ISSN: 1130-6599

BERRIGARAk ez du bere gain
hartzen aldizkarian adierazitako
esanen eta eritzien erantzunkiz-
unik.

PROTAGONISTAK

BASURDEA

Joan den irailaren 9an zenbait basurdek Basal-goko Intxuzabal baserriko ortua eraso zuten eta 50x20 m. inguruko azalera ziren artoa, baba eta erromalatak zisko egin da utzi zituzten. Tomas Osororen ortua erabat hondatuta geratu eta, balorazio ekonomikorik egin ez den arren, kalteak nahiko inportanteak izan ziren.



Udaltzaingotik esan digutenez, hiruzpalau basurde izan omen ziren eraso burutu zutenak. Arazoa Diputazioaren Nekazal Departamentuaren eskutara pasa da eta ziuraski Diputazioak edota Eusko Jaurlaritzak

ordainduko ditu izandako galerak. Honako hau ez da kasu bakarra izan eta, basurdeen ugaltzarekin batera, erasoak ere gehitu egin dira azkenaldian. Basurdeen beda, hilaren 27an zabalduko da

Kalte ugari eragin ditu inguruko baserrietan

ITURRI ONETIK

Anaje Narbaizak zinegotzi postua utziko du

Anaje Narbaiza Bergarako Udalean Herri Batasunako zinegotziak, bere kargua utziko du egun gutxi barru. 23 urte zituenean ekin zen Udaletxean lanean eta hiru legegaldi (bederatzi urte) eman ditu bertan. Aurreko legegaldian, Jose Luis Elkoro alkate zela, Kultura eta Hazienda Batzordeetako burua izan zen alkate orde lanak ere bete zituelarik.

ESAN DUTE

"Europaldera begira geunden / guztia ona zala ta / baina hor ere egun hauetan / bada nahiko zalaparta / Britaniako libra behera / doala dago zarata / italiarren lirak hartu du / inglesan antzeko planta / krisialdian iraun nahi eta / pezetak indarra falta / arazotatik alde egitea / gauzarik onena data / Aralarrera artzai joateko / hau aukera aparta".

KOLDO ALBERDI
Bertsolaria
EGUNKARIA

"Hemengo nekazariak sufritu dute dagoeneko, nekazal Maastricht-a (...) III. Munduko herrialdeetatik ekartzen ditugu lehengaiak, eurak gosez hiltzen diren bitartean eta hemen soberakinak produzitzen ditugun bitartean".

MAITE ARISTEGI
E.H.N.E.ko abokatua
ETBko ADOS? SAIOA

Atsedeen zentrua

LOKARTU

Koltxoi-Denda

Bideberri z/g Tfnoa: 76 05 01

UNED-BERGARA

IKASTETXE
ELKARTUA

1.992-93 urterako MATRIKULA EPEAK

LEHENENGO EPEA:

Irailaren 15etik urriaren 15era

BIGARREN EPEA:

Urriaren 1etik 31ra

BULEGO ORDUAK: Asteartetik ostiralera: Goizez, 10.30etatik 12.30etara. Arratsaldez, 17.30etatik 20.00etara. Larunbatean: Goizeko 9etatik 12.00etara.




JAQUE AL ASESINO

Ostirala: 22.30.
Igandea: 17.00, 19.30 eta
22.15.
Astlehena: 19.30.


PARIS TROUT

Larunbata: 17.00, 19.30 eta
22.30.


HOOK

Igandea: 11.30 (Matinala)

▼▼ Chrisophe Lambert eta Diana Lanek protagonizatutako filme honetan suspensea ez da falta. Ajedrezeko maisu haundi batek bere jakintasun analitiko eta estratejiko gutzia jarriko du gaizkile arriskutsu bat harrapatzen laguntzeko. Partida nola amaituko ote?

▼▼ Gorrotoa, eromena, perbersioa... Dennis Hopper tartean egonda, zer espero daiteke? Estatu Batuetako hegoaldean kokatuta, pertsona batek duen gutzia nola gal dezakeen kontatzen zaigu. Eta batez ere bere albokoak izango dira sufrimendu osoa jasanago dutenak.

▼▼ Steven Spielbergen azken *abenturak* takilla guztiak hautsi baditu, kritikak eman dion jipoi ere ez da txantxetakoia izan. Dustin Hoffman, Robin Williams eta Julia Robertsek *Peter Panen* bertsu berria dakarkigute. Haur... eta nagusiek eskertuko duten lana, duda barik.

▼ **Taun-Taun Show** Txon-txongilo antzerkia, ostiralean gaueko 22.30etan Arrasateko Monterronen.



▼ **Rock kontzertua Gaztetxean:** Walton eta Gatazka taldeak larunbatean gaueko 10.30etan.

▼ **Spok eta Fukhing What** Angiozarren izango dira larunbatean gaueko 11.30etatik aurrera.


▼ Larunbata 26:

Estella / Irizar.

▼ Igandea 27:

Estella / Azkoaga.

▼ Astlehena 28:

Mozos / Ruiz.

▼ Astearte 29:

Camacho / Morales.

▼ Asteazkena 30:

Puy / Azkoaga.

▼ Osteguna 1: Guallar.

▼ Ostirala 2: Estella.



▼ **Igandea 27:** Bolintxo.

TXORNO
Auto-Rekanbioak

Ibargarai 33, BERGARA
☎ 76 28 95

Olio lata bat
erosteagatik, kotxearen
olio aldaketa DOAN!!

FERNANDEZ



Oihal puskek
Oihalak

San Antonio 3
Tfnoa: 76 22 93

Ibargarai 2
Tfnoa: 76 53 22

DEIAK

▼ **Argazki Rallyea** antolatu du urtero bezala, **Pol-Pol Argazki Taldeak** urriaren 4rako (igandea). Bergarako kale eta auzoetatik zehar burutuko da.

▼ **Autobusak** antolatu dira Oiarzunen ospatuko den **Kilometroetara** joateko. Txartelak 800 pezeta ren truke eskuratu daitezke Aranzadi ikastolan edota Udaleko Euskara Zerbitzuan urriaren 1a baino lehen.

▼ Bieran egingo den **Nafarroa Oinez** festan **lagundu** nahi duten **kuadrilei** dei egiten die Aranzadi Ikastolak. **Urriaren 11an** ospatuko da eta **taberna** eta horrelakoetan lan egiteko laguntza behar da. Interesatuok dei ezazue 76 26 76 telefonora.

▼ **Euskaldunon Egunkariaren tonbola** eta bigarren urteurrena ospatzeko antolatzen diren ekitaldiak aurrera eramateko batzorde bat sortu nahi da. Interesa duzuenoi **asteazkenean**, hilak 30, arratsaldeko 7 t'erdietan **Kultur Etxean** egingo den bilerara deitzen zaizue.

▼ Drogomenpekotasunen Prebentziorako Udal zerbitzuak **Bizi Alternatiboaren VI.** ediziorako antolatutako kartel lehiaketaren oinarriak **Kultur Etxean** edota aipatutako zerbitzuan jaso daitezkeela gogorazi du.

▼ **Senideak** taldeak astartero arratsaldeko 7 t'erdietan **San Martin Plazan** egingo dituzten konzentrazioetan parte hartzera dei egiten du.

KIROLAK

▼ Futbola:

• **Bergara - Anaitasuna** (1. go mailako kadeteak). **Larunbatean** goizeko 11.30etan Ipintzan.

• **Bergara - Danak** (2. mailako erregionala). **Larunbatean** arratsaldeko 5etan Ipintzan.

• **Bergara - Eibar** (2. mailako kadeteak). **Igandean** goizeko 10.00etan Ipintzan.

• **Bergara - Eibartarra** (2. mailako gazteak). **Igandean**, goizeko 11.30etan Ipintzan.

▼ Pelota:

• **Elgeta - Bergara** (Infantilak, alebinak eta kadeteak). **Igandean** goizeko 11etan Elgetan.

• **Elgoibar - Bergara** (Seniorrak). **Igandean** eguerdiko 12etan Elgoibarren.

▼ Mendi Bizikleta:

• **Mendiko Bizikleten lasterketa** jokatuko da **larunbatean** arratsaldeko 5etan **Angiozarren**. Hiru kategoriazberdin izango dira.

AUKERAN



▼ **Fuckin What** eta **Spok** taldeek rock kontzertua emango dute **Angiozarren** larunbatean gaueko 11.30etan **San Migel** jaien barruan. Ondoren **Txarangak** gaua alituko du eta goizaldera, txokolatea banatuko da.

ederTu

ERA ETA PREZIO GUZTIETAKO ALTZARIAK

Barrenkale 23

Tfnoa: 76 29 65

BERGARA

JULIA

Frutadenda

Matxiategi 4 Behea BERGARA

Bergararra izatea aski?

Martin Garitano agurgarria: Berrigarak atera zuen 75. zenbakian (1.992-IX-11) zure burutapena, "San Martinak" izenpean azaltzen zena, irakurri nuen. Ezer esaten hasi baino lehen, gustora irakurri nuela esan beharrean naiz. Argi dago, denborarekin batera arazoak eta eguneroko gorabeherak gutxitu beharrean areagotu egiten direla. Dena den, ez dakigu nori esker, hor daukagu gure San Martin (edo "San Martinak") gure ezbeharretan goxotasun pixkat jartzeko. Zalan-tzarik gabe oso "geure" da sendagai hau.

Jai honek, bergararrak garela eta, harro sentitzeko beste arrazoi bat eskaintzen digu. Dena den, zure idazkieren azken hitzak niregan ondorengo ausnarketa hau sortarazi zuen, eta zurekin elkarbanatu nahi nuke. Nire lotsarako, Agirreko Martin ez dudala ezagutzen esan beharrean naiz. Aspaldiko pertsonaia dugu eta denborak berak gertakizunei eta datu historikoei zerbait kontakizun ezartzen dizkie, egia bera haundituz, aldatzen ez duenean. Dena den jai baten inguruan beti daude ideial batzuk. Zure ustez, argi dago Agirreko San Martin bergararra zela. Baiterik hala izatea (bada ez bada ez dezagun ozenkiegi hitzegin, Deskarga pasa ondoren Beasain nahiko hurbil bait

dago). Bere santutasuna, oster, zalan-tzan jartzen duzu "bada hortik zehar - zure hitzak dira- honetaz bere zalantzak agertu duen bat baino gehiago". Ez da nire asmoetan bere santutasuna aztergai sartzea, zure arrazoiarengatik azpiplanteamendua baizik. Zure ustean santu izan ala ez, festa berdin berdin egin beharko genuke, "bergararra zanik argi eta garbi bait dago". Eta hemen dator, Garitano jauna, nire galdera. Aski al da bergararra izatea festa bat antolatzeko?. Bergararra izatea jaiotzeak eman zigun. Alde horretatik ez dago meritu haundirik.

Bestaldek, gaur egun gero eta gehiago zabalduaz doa joera sustraietatik kanpo ibiltzea da, eta zerbait ospatzean ez da gogoan hartzen "ospatzen dena", baizik eta "ospatzen dela" eta arrazoi ordez, aitzakiak erabiltzen dira. Gizakio, denboran hazten gara, eta leku bat behar dugu. Denbora eta lekua lokarri bihur daitezke, baina benetazko gizakiak lokarri horien gainetik besteentzta eredu bihurtzen direnak dira. Badago, beraz, bergararra izatea baino zerbait gehiago, bergararra izatea gutxi ez bada ere.

Dena ondo joango zaizulakoan jaso ezazu nire agurrik beroena.

Xabier Larrañaga

Bergarako Gida Komertziala

Urte amaierarako proiektu berriak ditugu Berrigararen. Horien artean bat Bergarako Agenda. Eta agendaren barruan Bergarako dendari, profesional eta enpresa guztien helbide eta telefonoak eman nahi ditugu behar bezala sailkatuta. Telefono-listineko «Orrialde horiak» deitutako enantzeko zerbait izango da, baina Bergararako. Bertan agertzea merke-merke izango da: 1.000 pta. baino ez.

Gure asmoa gainera hementik aurrera urtero ateratzea izango litzateke eta aurrerantzean kobratu gabe.

Agendak, Gida Komertzialarekin batera, beste hainbat helbide eta telefono ekarriko du: larrialdietarako telefonoak, kultur eta kirol elkartenak, elkarte gastronomikoenak, etab.

Gida honetan agertu nahi duzuen guztiok aukera izan dezazuen, laster izango duzue gure publizistaren bisita. Etzazu galdu aukera eder hau!

Tiira ba!



Josu Okina

Angiozarrek San Migelak ospatuko ditu astebukaeran

□ JUBILATUAK

Bergarako Jubilatuen Egoitza jatetxe zerbitzua eskeintzeko aukera aztertzen ari da. Horrela, bakarrik edota gehienez beste bi pertsonarekin bizi diren 60 urtetik gorakoei inkesta bidali zaie beren etxeetara. Jubilatuen Egoitzak guztien kolaborazioa eta irailaren bukaerarako inkestak entregatzeko eskatzen du.

□ GRIPEA

Gripearen kontrako bakunazio kanpainarekin jarraituz, 65 urtetik gorakoek eta bolantea duten 65 urtetik beherakoek ere, zerbitzu hau jaso ahal izango dute datorren asteazkenean, hilak 30, ordubateetik ordubietara Labegaraietako Kiroldegian edota urriaren lein Osintxuko dispensarioan ordutegi berean.

Kanpai jote eta etxafle-roekin ostiralean, hilak 25, arratsaldeko 8etan emango zaie hasiera Angiozarren San Migelen omenezko jai-iei. Ordu erdi beranduago kalejirak izango dira, gaueko 10etan briska txapelketa eta gaueko 11 t'erdietan dantzaldia *Luhartz* taldearekin, goizaldera txokolata beroa banatuz.

Larunbatean, arratsaldeko 3 t'erdietan plater tiraketa herritarrentzat eta 5etan mendi bizikleta lasterketa. Arratsaldeko 7etan mus txapelketa jokatu da eta 9etan kalejira. Gaueko 11 t'erdietan, berriz, rockaren txanda izango dugu *Fucking what* eta *Spok* taldeek eskeiniko duten kontzertuarekin. Ondoren, txaranga goizalderate eta txokolata eguzkiari ongi etorria emateko.

Domekan, hilak 27, Meza Nagusia goizeko



11etan San Migel Goiaingeruaren elizan Bergarako Musika Eskolako koralak lagunduta. Gero eskola berria eta ur depuragailuaren inaguraketa 12.30etan, eta jarraian lancha eskeiniko da eskolan bertan. Arratsaldeko ordubiterdian herri bazkaria izango da Jon Sarasua eta Xabier Amuriza bertsolariek eta

Eguzki taldeak alaituta eta gaueko 9etan jaietako zozketa.

Bukatzeko, asteartean, San Migel egunean, Meza Nagusia 11tan, eguerdian salda herritar guztientzat, 5 t'erdietan haurrentzako jolasak, antzerkia 8etan eta gaueko 9etan Plazatik San Migelen zeruratzea eta aurtengo jaien bukaera.

Eskola berria inauguratzeaz

Igandean, orain dela 6 urte eraikitzen hasi zen eskola berria inauguratuko da Angiozarren. Frontoiaren ondoan, eskola unitario (gela berean kurtso ezberdinak ematen dira) hau egiteak 25 milioi pta.ko kostua izan du eta Eusko Jaurlaritzak ordaindu du guztia. 192 m²-ko azalera du, bi gela ditu (bata klaseak emateko eta bestea liburutegirako) eta, planta bakar batetan 3 urtetik 8 urtera bitarteko 10 hurrek ikasiko dute. Bestalde, ur depuragailuri esker ur zikinak errekarazuzenean ez heltzea lortuko da eta, era honetan, lehenengoz Gipuzkoan ur zikloa osorik betetzea posible izango da: Urkulutik garbia heltzen den bezala, Angiozarretik Altos Hornoseraino behintzat garbia joango da. Bergarako Udalak ordaindu du ur depuragailua (12 milioi pta.), ura bertaraino eramateko egin diren zenbait obra (6 milioi) Mendi Nekazaritza sailarekin batera ordaindu direlarik (udalak 2,7 milioi inguru).




REMENTERIA

Altzariak

Egongelak / Logelak
Aukera guztiak / Enkarguak

Artekale 6, Tfnoa: 76 13 29



ZABALETA ERROTULOAK

Mota guztietako errotuloak.
Fatxadak, eskaparatek...

Amilaga (Gasolineña ondoan) Tfnoa: 76 57 34

□ **ALDERDI EGUNA**


Igande honetan, hilak 27, Salburuan (Gasteiz) ospatuko den Alderdi Egunera joateko autobusak antolatu dira. Irteera goizeko 9etan izango da Beheko Estaziotik eta txartelak Batzokian jaso daitezke 600 pta.ren truke.

□ **SOLDADUZKA**

1.975ean jaiotako mutilei jakin arazten zaie urriaren letik abenduaren 31ra bitartean zabalik egongo dela soldaduzkarako alizatzeko epea Udaletxeko bulegoetan. N.A.N.a, gaixoren bat alegatu nahi izanez gero, mediku ziurtagiri ofiziala eta, atzerapena eskatu nahi bada eskolako ziurtagiria eraman beharko dira

□ **MENDI BIZIKLETA**

I.go Mendi Bizikleta Irteera jokatu da larunbatean, hilak 26, arratsaldeko 3.30etan Bergaran. Izen ematea eta irteera Plazan egingo dira.



Droga arazoak

Drogomenpekotasun Prebentziorako Udal Zerbitzuak drogen menpean dauden familiakideekin egin ohi dituen bilerei jarraipena emango die datorren urriaren 5etik aurrera. Bilera hauek, drogen menpe bizi baina beren menpekotasuna onartu ez eta tratamenduaren beharrik ez daukatela uste dutenentzat edota tratamenduan jarri nahi ez duten pertsonekin bizi direnei zuzenduak daude, kontutan hartuz arazo hau elkarbizitzarako oztopo larria izaten dela.


Eta berri honetan, bilera hauek psikologo batek

zuzenduko ditu eta, besteak beste, drogomenpekotasuna duten pertsonekin bizi izateak sortzen dituen arazoak aztertu dira, arazo hauek gainditzeko laguntzea, egoera hauek bizitzeko beste era batzuk topatzen ahalegintzea eta, azken finean, arazoarekin minik hartu gabe bizitzen ikastea lirateke bileren helburu nagusiak. Drogomenpekotasun Prebentziorako Udal Zerbitzuak dei egiten du astelehenero arratsaldeko 7 t'erdietan Kultur Etxean egingo diren bilera hauetan parte hartzeko. Informazio gehiago, zerbitzuan bertan.

Amaia Arantzabalek 8 milakoa lortu

Amaia Arantzabal mendizale bergararrak Katmandun dagoen Cho o Yu mendateko gailurra (8.189 m.) zapaldu zuen pasa den irailaren 17an. Irailaren 21ean, berriz, Pili Ganuzak lortu zuen eta beraz Amaia dugu 8.000 metro baino gehiagoko gailurra zapaltzen duen lehen emakume euskalduna (aurretik, Estatu mailan, Monica Berge eta Magda Nos katalandarrak tontor hortara iritsi ziren). Amaiak adierazi zuenez, "gogorra izan da baina oso pozik gaude. Hotzarekin problemak izan ditugu eta 8.000 metrotik gorako mendi guztietan bezala han goian ez dago bromarako aukerarik". Espero da Amaia eta gainontzeko espediziokideak lehen bait lehen bueltatuko direla Euskal Herrira.

SANTOS IRRATI - TB



TB-Soinua-Bideoa
Antena instalazioak
Kanal Pribatuak
Sukalderako altzariak
Argiztapenak

Mahasterreka 2

Tfnoa: 76 26 10

BERGARA

TOKI-EDER Taberna

Pintxoak eta
eguneko bazkariak

Artzamendi, Tfnoa: 76 51 84

ANTIA HARATEGIA URDAITEGIA

Txahal, idi, txerri, bildots, untxi
eta baserriko oilaskoak.

Matxiategi, Tfnoa: 76 15 09



Kale garbiketa

Joan den asteleheneko Plenoan, EA eta HBren kontrako botuekin eta EAJ, PSOE eta EEren aldekoekin, kale garbitasun zerbitzua 48 milioi pta.tan Garbile enpresari adjudikatzea erabaki zen. Enpresa honek, orain arte Udaleko plantilan ziren 7 langileak eta beste bost langile (beti ere bergararrak) kontratatuko ditu eta, horrez gain, kale garbiketa igandetan, jaiegunetan eta auzo ezberdinetan egiteko konpromezua ere hartuko du. Adjudikazioa 6 urtetarako

izango da eta Garbilek kontenedoreen ardura ere hartuko du. Ur zikinen garbiketa, berriz, orain arte lan hori burutu duen Alfus enpresari ematea erabaki zen, oferta interesgarria eskeintzeaz gain, Alfusek egindako lanarekin pozik azaldu baitziren udal arduradunak.

Era berean, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailari Agorrosin gunean 7.000 m²-ko lursaila ematea erabaki zen Lanbide Heziketa Eskola berria eraikitzeko.

TXINPARTAK

- ✓ **Pol-Polek Himalayara** antolatutako mendi espedizioa finantziatzeko atera diren kamisetak salgai daude oraindik UNED edota Pol-Pol eta Zuhaitzi tabernetan.
- ✓ **Xabler Díaz de Zerlo** artista bergararraren eskultura erakusketa urriaren 1etik 15era egongo da ikusgai Zangotzako Kultur Etxean.
- ✓ **Matxinada** izeneko talde batek bere gain hartu du azkenaldian Bergarako hainbat etxebizitzetatik aspaldiko «Ministerio de la Vivienda»-ren plakak kentzearen erantzunkizuna.
- ✓ **Benito Canterok** lehen saria lortu zuen *Manuel Iradier* Gasteizko Mendizale taldeak antolatutako argazki lehiaketan. **Agustín Gurrutxagak** 3. saria eta **Daniel Santosek** lehen akzesita eskuratu zuten.
- ✓ **Jubilatuen Egoltzak** urria eta abendu bitartean terapia okupazionalerako hainbat ikastaro jarriko ditu martxan. Parte hartu nahi duten bazkide guztiek asistente sozialarengana jo beharko dute irailaren 30a baino lehen.
- ✓ **Arrasateko IHESaren** aurkako **Batzordeak** mahai informatibo bat jarriko du San Martin Plazan igandean, hilak 27, eguerdiko 12etatik ordubietara.

TABERNA ZAHARRA

Jatetxea

Bazkariak
eta
afariak

Tfnoa 76 21 21
ANGIOZAR

LAGUN ARO

ASEGURUAK

Agentea:
RAMON IRAEGUI



ORDEZKARIA
BERGARAN

Ramon M. Lili 6
Tfnoa: 76 23 30
Faxa: 76 41 54
20.570 BERGARA



VID-ART

Bidriera artistikoak

BIDRIERAK - MURALAK -
ISPILUAK-KRISTAL
BISELATUZKO
ATEAK - etab.

Azal eiguzu zure ideia
VID-ARTEk
egingo dizu.

BELANBIDE, Z/G • 20.570 BERGARA
Tfnoa: 76 23 30 / 76 41 54



Elixamendiko Andramaria

zari.

Jende asko joaten zen ermitara eta Andremariaren degozazio ugaria izan du. Haurdun zeuden emakumeak edo ttikiak zeuzkatenak joaten ziren berarengana eta oraindik ere ikusten dira kandelak bere aldare aurrean.

Ahoz aho jaso denez, ermitaren ondoan haritz haundi bat omen zegoen eta hamar pertsonak lo egin omen zezaketen bere barrerean. Marindanotarrak moztu nahi zuten ikatza egiteko, baina Andramariak desegin omen zuen zigortzeko asmoarekin.

Martxoaren 25ean, bere jai egunean, meza ematen da eta arratsaldean haurrak bedeinkatzen dira arrosarioa errezatu ondoren.

Lehen, inguruko herrietatik barrenean, artean Bizkaiko eta Arabakoetan ere bai, serora ibiltzen zen Andramariaren iruditxo batekin. Muin emateko eskeintzen zuen eta baba gorria, gazta, dirua eta abar jasotzen zituen bere matendurako.

Imanol Sorondo

Elixamendiko Andramaria Marindaoko auzoan dago, Angiozartik Elgetara doan bidean. Zahar fama dauka, eta parrokia bera baino lehenagokoa omen dela. 1.562. urtean Angiozarko elizak 8 dukat zor zizkion eta hau da ezagutzen dugun daturik zaharrena. Aspaldian parrokiak

4 erreal ordaindu izan zizkion ermitari hileta bakoitzeko; zergatik ote zerga hori? Gerrateetan, gure artekoan eta frantzestian, hondamen ugariak jaso ditu.


Andremariaren irudi ederra dauka: eserita, baintente samar, bularra ematen dio bere haurrari, eta ho-

rrelakoak gutxi ditugu Gipuzkoan; aurpegi polita eta goxoa dauka, ile kizkurra eta luzea. Irudi ona da, gehiegi doratua agian, gotiko eta errenazimendu bitarteko estilokoa.

Ermitaren aurrean dagoen zelaitxoak beherakada bat egin du eta arriskua ekarri lezaioke bere elei-

Biltoki

GAUZAK ERRAZ JARRIKO DIZKIZUGU!

 **xey**

Sukalde eta bainugelarako mobleria
Diselnuak eta goimallako kalitateak
5 urteko garantia

San Pedro z/g
Tfnoa: 76 34 00

PHILIPS



Teknologia eta diselnuak
TB-BIDEOAK eta HI-FI MATCH-
LINEakipoak
K-200 telebista berriak


Barrenkale, 6
Tfnoa: 76 25 96

dekorazioa

Estiloko altzariak eta gazteentzakoak
Alfonbrak, leiho-oihal, narruzko sofak,
tapizak, ...
apaingarriak

San Martin 2
Tfnoa: 76 43 51

Guztiok ezagutzen dugu bakarren bat, eta azkenaldi honetan apur bat gehiago entzun dugu beraiei buruz Bartzelonan Joku Paralinpikoak izan direla eta. Hala ere, familian edo oso inguru gertuan elbarritu bat ez duenak ez du apenas harremanik beraiekin. Ezagutu ditzagun gehiago elbarrituak eta beraien bizimodua.



Elbarrituak: ezintasunari aurre egin nahia

Bergarako Udalak amaitu berri du elbarrituei buruzko azterketa zehatz eta zabal bat. Bilboko soziologa batek burututako lan honetan Bergarako elbarrituen zentso bat egin da, eta hortik aurrera beraien hezkuntza eta lan aukerak aztertu dira, beren bizimodua eta herrian ibili eta bizitzeko dituzten arazoak. Elbarrituen egoera hobetzeko udalaxeak martxan jarriko dituen neurrien abiapuntua da lan hau.

Kopuruak

Bergaran 209 elbarritu

daude. Gutxitu fisikoak, gutxitu sikikoak, paralitiko zerebralak eta ezindu sensorialak (gorrak, itsuak...). Dena den, kasu askotan minusbalia era bat baino gehiago azaltzen da bakoitzarengan.

209 hauetatik 110 emakumeak dira eta 99 gizonetzkoak. Adinari dagokionez, hauetxek azterketaren emaitzak:

16 urte baino gutxiagoak %5'2.

16 eta 35 urte bitartean %37'8.

36 eta 55 urte bitartean %24'9.

56 urte baino gehiagoak % 32.0.

Eskola

Eskola adinean daude-nak 31 dira, baina 25 bakarrik dabilta ikastetxeren batetan. 25 horietatik 12 ikastetxe berezietan, eta 13

Zerbitzuak

Lanari dagokionez, lanerako adinean daudenen artean %25'8k ez du inoiz lanik egin. Gainontzekoak

Bergaran 209 elbarritu daude. Hauetatik 110 emakumeak dira eta 99 gizonetzkoak. Gehienak pertsona helduak.

ohizko ikastetxe batetan. Horiek ditugu, beraz, ikasten ari diren elbarrituei buruzko datuak.

enpresa normaletan edota lan babestuko zentzutuan egiten dute.

Bergaran lan babestuko

**JOSE
LUIS
eta
MIKEL**

Urteaga 6, Tfnoa: 76 50 37 / 79 35 17

Besaulki eta tresiloen konponketa eta tapizaketa. Etxebarruen dekorazioa

**AGENTZIA:
J. ELKORO**

Ibargaral 2, behea
Tfnoa: 76 57 85
BERGARA

VITA

CAUDAL

ZURICH



UNIBER

HISPANA

ZURICH TALDEA ASEGURUAK



lan elbarritu fisikoentzako, eta Gureak tailerra, gutxitu sikikoentzako. Bietan Bergarako jendeaz gain eskualdeko elbarrituak ere badabilta lanean.

Paralitiko zerebralaren zerbitzurako Aspace erakundeak 2 zentru ditu Bergaran, bata umeentzako eta bestea helduentzako. Gutxitu psikikoek Txolarte denbora libreko tailerlean larunbatero biltzeko aukera dute.

tzeko. Kanean topatzen dituzten oztopo arkitektoniko eta urbanistikoek ere izugarrizko arazoak dakarzkie elbarrituei, ezin bait dute gehienetan bere kasa ibili, eskilarak, ate estuak, eta horrelakoak leku guztietan daudelako. Ikastetxei dagokienez, Bergarako elbarrituek salatzen dute zentruetako instalazioak ez direla egokiak eta ez dutela laguntza pedagogikorik.

Arazoak

Azkenik Aransgui, goren eskola aipatu behar.

Elbarrituek bere eguneroko bizitzan dituzten arazoaren artean garraioa da nagusienetakoa. Kotxe bat ongi prestatua ez duenak arazo handiak izaten ditu ohizko garraioak erabil-

Denbora libre

Denbora libre ere aztergai izan da.

Normalean kalera ateratzen dira %54'1.

Gutxi ateratzen dira %25'4.

Ez dira ia inoiz ateratzen %6'2.

Ez dira inoiz ateratzen %14'4.

Txolarte Astialdi Klub

Ani Molina, Txolarteko kidea

«Txolarte» astialdi kluba orain dela 6 urte inguru sortu zen seme edo alaba gutxitu sikikoa zuten eta, denbora libreaz kezkatuta zeuden guraso batzuren bultzadaz eta borondatez lan egin izan duten hainbat monitore gazteren partaidetzaz.

Hasiera batean helburu nagusia dibertsioa zen eta, horrekin batera, zenbait gaitasun eta jokabidez jabetzea bizimodu *normalizatuagoa*, inguruko pertsonenaren antzekoa, egin ahal izateko.

Gaur egunean, aurreko horretaz gain, gure gutxizentzako elkartezelekuak bilatzen saiatzen gara, berenizatearengizarte eta harremanetako alderdia gara dezaten eta bizi diren gizartean partehartze

haundiagoa izan dezaten. Hori dela eta, herri mailan antolatzen diren ekintzetan parte hartzen saiatzen gara eta klubak berak ere antolatzen ditu bere iharduerak: eztabaidak, sukaldaritza ikastaroak, autonomia pertsonala eta soziala bultzatzeko lanak, jolasak... Asteburuetan irteerak egin izan ditugu eskiatzera, Euskalerriko albergeetara, etab. etara, eta udako oporretan 15 eguneko egonaldiak antolatu izan ditugu.

Azken batean, gutxitu sikikoarentzako ahalik eta *gizarteratze* eta *normalizazio* haundiena bilatzen dugu, gutxitua, bere muga guztiak gora behera, gaitasun batzuk dituen eta garapenean dagoen pertsonatzat joaz.



Txolarte elkarteko Ani Molina elbarritu batekin

anezka

**Udazkenerako ohialak
eta jostungintza**


Espaloia 8 Tfnoa: 76 59 25

GISASOLA BURDINAKI DENDA

"Erratzu"

Pedro Deuna 8, Tfnoa: 76 27 70 BERGARA

Hauexek azterketaren emaitzariko batzu. Baina elbarrituek ere badute zer esanik beren esperientziei buruz. Berrigarak Agustin Toledorekin hitzegin du bere eguneroko bizimoduaz, bere zaletasunei buruz eta beste hainbat gauzetaz.



Agustin Toledo elbarrituarekin:

"Beti gustatu izan zait kirola"

Agustin Aspaceko helduen zentrura joaten da egunero. Lan egiteaz gain beste hainbat ekintza ere burutzen dituzte Aspacen. Astean behin igerilekura joaten dira, eta baita futbol zelaira ere. Hilean behin, berriz, zinera.

Agustin oso kirol zalea da. Lehen ikustea gustatzen zitzaion, baina orain parte hartu ere egiten du. «Gustora egiten dut kirola denbora librean. Astean 3 egunetan egiten dut pixu

jaurtiketa eta bocciara ere jolasten dut. Boccia elbarrituentzako petanka antzeko kirola da. Nik ez nuen pentsatzen pixua jaurtiko nuenik neure bizitza guztian, baina orain dela 5 urte Aspacetik deitu zidaten Iruñeara Espainiako txapelketara joateko eta horrela hasi nintzen. Beti gustatu izan zait kirola ikustea, eta orain egitea, zer esanik ez.»

Agustin Bartzelonako Joku Paralinpikoetan izan

zen ikusle gisa eta izugarria iruditu zitzaion esperientzia. «Joku paralinpikoetan dena izan zen polita eta hunkigarria, baina batez ere inaugurazioa, negar egitekoa izan zen. Publikoaren erantzuna ere izugarria izan zen, harrিতa geratu nintzen. Igeriketean, esaterako, finalak hasi baino ordu bete lehenago sartu behar izan genuen Picornell igerilekura, eta ikusleen artean denetarik zegoen, elbarrituak eta ez

elbarrituak.»

Agustinen marka ez da paralinpikoetan parte hartzeko modukoa, oraingoz behintzat, baina ez da, ordea, makala kirol arloan lortu duena. «Ni Gijon-en jokatu zen Espainiako txapelketan izan nintzen. Maila aldetik ez dago paralinpikoekin konparazerik, baina niretzako arrakasta handia izan da, hori da berriro ere nire helburua. Oso esperientzia positiboa da estatu osoko atletekin harremana izatea.»

Kirol munduan sartzea aurrerapausu handia izan da elbarrituentzat gizartean integratzeko, baina oraindik arazo latza badute jendearekiko harremanei dagokionez. Zentruetan ez daudenean, normalean, etxean egoten dira. «Jendeak modu arraroan begiratzen gaitu, eta egin behar duten lehenengo gauza da geu ezagutu, inork ere ez bait gaitu ezagutzen.»

Elbarrituei eskeintzen dien zerbitzuen aldetik gauza asko hobetu daitezke Bergaran, baina hala ere oso ongi dago beste herri batzuekin konparatuz. Gainera Bergarako elbarrituek ontzat jotzen dute Udaletxea arlo honetan egiten ari den lana. «Udala oso ongi portatu da beti gurekin eta zerbaiten eske joan garenean beti egin digute kaso. Harremana ona da. Horrelakoa den bitartean ondo gabiltza.»

ARRASATEARRA

Gure berezitasuna bazkariak.
Eguneko menua daukagu.

Taberna

Zublaurre 22, Tfnoa: 76 20 19 BERGARA

IGARO

- ✓ Kosmetika eta oparigalak
- ✓ Eder gela
- ✓ Bio Solariunma

Barrenkale 35, Tfnoa; 76 17 27

Zubiberri Sagardotegia

- Eguneko menuak
- Kazuelitak

San Anton, Tfnoa: 76 41 06



ETXE AUNDI

Negozio bazkariak
Ezkontzak
Banketeak

Torre Auzo 9, Tfnoa: 78 19 56
OÑATI


FS

oto sistema

ARGAZKIAK ORDUBETEAN

- ✓ Diapositiba errebelatzeak
- ✓ Karneterako argazkiak momentuan.
- ✓ Argazki materialen salmenta eta konponketak.
- ✓ Jaunartze, bataio eta bodetako erreportaiak.

Kruz Gallastegi 2, Tfnoa: 76 00 50



PAPERDENDA

Marcó

Bidekurutzeta, 44
Tel. 943 / 76 05 54
Fax. 943 / 76 05 54
20570 BERGARA

Aurten ikastaroren baten apuntatu zara?



Karlos Aldai
13 urte, ikaslea

Iaz ingeles ikastaro batetan urte osoa eman nuen, baina aurten ez daukat asmorik.



Edurne Mujika
16 urte, ikaslea

Ez, aurten ez. Beharbada matematikak menperatzeko klase partikularrak hartuko ditut, baina seguruen ez.



Edurne Arregi
15 urte, ikaslea

Iaz bezala, aurten ere ingeles ikastaro batetan apuntatu naiz



Julen Otaño
14 urte, ikaslea

Kitarra ikasteko asmotan nabil eta Musika Eskolan eman dut izena.



POL - POL TABERNA

Tfnoa: 76 48 51

DEPORTIVO TABERNA

Tfnoa: 76 01 51



Informazio gebiago

Gaur egun bizi dugun egoera ekonomikoa oso larria dela inork ez du zalantzan jartzen. Gizartea kezkatu dago baina biztanle gehienok ez dakigu oso ondo, ez dugu oso ondo ulertzen, Solchagaren ajuste ekonomikoa horiek zer ekarriko duten, pezetaren debaluazioak ze eragin izango duen gizarte-arengan... Galdera hauek eta antzekoak behin eta berriz atera dira airera azken egun hauetan, baina kasu gehienetan hor, airean, gelditu dira, inolako erantzun ulergarririk gabe.

Dena den, Maastricht-eko trataduekin zerikusia izango omen duen planteamendua gure egin eta aurrera goaz ezer gehiago jakin gabe. Maastricht-eko trataduari adostasuna adieraztea txarra denik ez dut esango, ez bait dut uste horrela denik, baina Espainiako gobernuak gai honetan egin duenarekin eta egiten ari denarekin ez nago batere konforme. Argi eta garbi daukate epe batzuetan Estatu espainiarrak zein egoeratan egon behar duen, eta helburu hori lortzeko inolako explikaziorik gabe, inolako informaziorik gabe, eta ia inor kontutan izan gabe, beraiek uste duten neurriak hartu dituzte. Baina, guri zer esan digute? Zein arrazoi eman digute? Maastricht-eko tratatua zertan datzan esplikatzen ahalegindu al dira? Ez eta pentsatu ere. Hartu duten bidea ez da inolaz ere egokia.

Ane Miren Lizarralde



Alkatea, barakina eta errementaria

Europa denon ahotan dagoen honetan, Luxemburg ondoko herri alemaniar baten kasua ekarriko dizuet. Alemaniako telebistak ikusterik ez zutenez, Eichtershausengo udalbatzak herria (140 bizilagun) kableatzea erabaki zuen. Dena kableatutakoan euren telebista propioa ere egin zezaketela konturatu ziren. Esan eta egin. Gaur egun, Eichtershausengo etxeetan satelite desberdinetatik jasotako eta udalbatzak botazioz aukeratutako hamar kanale ikusi ahal dira.

Hamaikagarrena, *Tele Eichtershausen* da. Estudioak Udaletxean dauzka. Oraingoz alkatea, barakina eta errementaria ari dira lanean €uren denbora librean. Lehena programak zuzentzen, ekoizten eta aurkezten. Bigarrena kamararekin. Hirugarrena teknikari lanetan. Hirurak musutruke. Denetarik ematen dute: bertako jaiak, ezkontzak eta baita herritarren bidaien berri ere. Alemaniako TBak zenbait herritar prestatzeari ekin dio, programak egiteko gai izan daitezten. Herri telebista honen kostoa lau milioi t'ardi pezetakoa izan da. Ikusle bakoitzari 51.072 pezeta kostatzen zaio hasierako lotura egitea. Hortik aurrera, hilero 128 pezeta.

Tele Eichtershausen Europako herri-telebistarik txikiena omen da. Ez al da *Tele Bergara* posible izango?

Joxe Aranzabal

Josefina

- Ezkongaiak orrazten eta ile-mozketa modernoak egiten espezialistak gara.
- Masajeak, Solariuma, perikura, estetika.

Espaloia 4, Tfnoa: 76 35 38

Mugica

Gozotegia

Artekale 3, Tfnoa 76 10 34

BERGARA PSIKOPEDAGOGIA ZENTRUA

(Psikologia Gabinetea)



- **Zerbitzuak:** Aspaldiko urteetan:
 - Kontsulta, diagnostikoa eta tratamendua (haur, gaztetxo eta helduentzat)
 - Eskola atzerapenatarako laguntzak, ikastexentzako zerbitzuak.

- **Tratamendua:** Psikoterapia (urduritasuna, depresioak, stress-a, harreman-arazoak, enuresia (gauetan txiza egitea), psikomotrizitatea, logopedia (hizkuntzazko zailtasunak, ahotsezkoa, afasia, artikulazio arazoak, totelatasuna,...)

Herri-Lagunak (Aranzadi Ikastolako patioetik sarrera)
Tfnoa: 76 14 80. Koordinatzailea: Jose Luis Irazabal

Beheko Taberna

Menestra eta konejoa dira gure berezitasunak

ANGIOZAR Tfnoa: 76 55 74

ELEKTRO

ARENAZA C.B.

Montaje elektrikoak, automatismoak, e.a.

San Lorentzo 19,
Tfnoa: 76 03 17 - 76 03 43

ANDUZU

ERAIKUNTZA
MATERIALEN
BILTEGIA

- Azulejo erakusketa
- Onduline • P.V.C.
- Blokeak • Pinturak
- Adreiluzko boteliatokia
- Mailazua • Garraioak egiten ditugu

Telleriko Lana Pol/Ind. San Juan
C-1-B Pab. Tfnoa: 76 01 41
Faxa: 76 00 58 BERGARA

Hagin klinika

Idoia Iriarte Irueta

Artekale 1, 1. C. Tfnoa: 76 01 65

GURIDI Altzariak

Era guztietako altzariak

Artekale 8, Tfnoa: 76 31 02



Azken meza

Don Serafin Esnaolak ez du gehiago San Antonion mezarik emango. Joan zen igandean, hilak 21, eman zuen azkena. Don Serafinek 77 urte ditu eta azken urte t'erdi honetan bi operazio jasan behar izan ditu, besikula kendu diotelarik. 28 urtetan astero San Antonion meza ematen jardun ondoren, orain ondo merezitako erretiroa heldu zaio. Hala ere bergarroi bisitatxoa egiten jarraituko duela esan zigun, ondo bait daki Don Serafinek hemen ongi hartua izango dela beti...



Amets

Zerbitzuak haundiagotuz
HERGO karabanen
banatzailea



Informazioa: ☎ 78 25 92 / 78 19 50

AMETS Tailerrak
Berezano Auzoa • OÑATI



Ganbaran bai

Datorren irailaren 29tik aurrera Euskal Telebistak emitituko duen hasiko duen **Ganbaran Bai** saioan agertuko diren papinak **Mikel Diez** artista bergararrak egin ditu. Saio honetako zati bat, Euskadi latex izenekoa, Euskal Herriko politika mundua ikuspegi komiko batetik aztertzea dedikatua dago eta bertan politiko ezberdinak (Arzallus, Bandres, Benegas, Garaikoetxea edota Jon Idigoras) *spittin image* ospetsuenen antzera azalduko dizkigute. Mikelek 25 urte ditu eta Arte Ederretan lizentziatuta dago, azkenaldian Zugarramurdin lanean ari delarik. Saio hau, esan bezala, asteartero ikusi ahal izango dugu ETBko lehen katean gaueko 9 t'erdietan.

Jesus Mari eta Mendi


Jesus Mari Plazaola

arrasatearra 5. postuarekin konformatu behar izan zen joan den igandean Oñatin jokaturako **Nazioarteko Ardi Txakurren Lehiaketan**. Jesus Mari Bergarako Udaleko langilea dugu eta, nahiz eta faborito nagusia izan, ezin izan zuen Gipuzkoa eta Euskadiko Txapelketan lortutako garaipena errepikatu, **Mendi** txakurrarekin ardiak esatera sartzen ari zela ultraligero bat pasa eta haren zaratak artzaiaren aginduak entzutea eragotzi bait zion txakurrari. Dena dela zorionak Jesus Mari zein Mendiri eta... txapela hurrengo baten lortu beharko!!



Zertan dihardute ba?

JOSE TELLERiarTE



Bergararron aitona dugun Jose Telleriartek 103 urte beteko ditu igandean, hilak 27. Jose osasun aldetik ondo dago eta Mizpirualde Egoitzako bere lagunekin batera ospatuko du egun berezi hori. Zorionak!!

SAN MIGELPE



Zubiaurreko elkartek urteroko bazkaria egingo du larunbatean, hilak 26, bazkidearen eguna ospatuz. Horrez gain, sozio zaharrena den Jesus Olabarria omenduko dute, Zezi soinu-joleak alaitutako bazkarian.

Kabutzia

ARRAINDEGIA

Fraiskozuri 6, Tfnoa: 76 56 62

MARKIEGI Automobilak

Automobil eta kamioien karrozeria

Lelzeaga 1 (San Lorentzo Pol/Ind.)
Tfnoa: 76 35 09 BERGARA



Umore giroan

Problemarik ez

"Punteret" gustorabizi zan bere giruan. Ez jakon ezer falta. Esaten zeban:

- Ni konforme nagok nagon moduan. Kosme Beistegik eruan nai izan jestan Mejikora an asko geixago irabaziko neba-la-ta. Nik, baiña, pentsau bez juaterik!m Ondo bizitzeko, nere itxuran, "kafe konpletua" egunero artuaz, etxaukat Eibartik kanpora juaan biarririk.

Eta umoretsu esaten zeban au beste au be;

- Nik etxakat prole-marik dirua gastatzen dotenian. Juaten nok etxera, eta tabako petakiakin egiten dana, orixe bera egiten juat: bete barriz.

* * *

Eibarko granujak

Gure gerra aurrian "granuja" batzuk egin dabe "fetxorixa" bat eta eruan dabez kontsejupeko inspeziñora. Euretari argixenak esatetse bestiei:

- Mutillak, zuek ixilik egon. Etxuau emon biar "pistarik". Bestela, etxian garbitxuko gaitxuek. Neuk bakarrik eingo juat berba. Zuek trankil.

Onetan agertu da aguzilla:

- A ver, zuek zeintzuk zarie? Esan izenak?

- Ara -diño mutil argixak- ointxe esango dogu egi guztia. Onek bixok anaixak dira: Kikili eta Mokolo. Au Xagu-zaarran anaixa da. Beste au atemorrolluan kaka eifñ zebana, eta bostok.

Auxe izan zan gaztetxo aien fitxa. ¡Averigüelo Vargas!

Pedro Zelaia

Antzinako kontuak

Errenazimendua

Erdi Aroko iharduera artistikoa, edo artesustapeneko, emankorra izan zela Bergaran zalantzarik ez da; Errenazimenduak, berriz, finkatzeko denbora behar izan arren, zelai ongarritua ez ezik egoera sozio-ekonomiko aldeko bat ere aurkitu zuen.

Bergarako aberastasuna, gremioen lanaz zein nobleziak administrazioko karguetan, negozio eta bestelako ekintzetan eskuratutako errentaz sortua, hiribilduaren birsortzean gelditzen da isladatuta, bere itxura-ezarian aldatuz. S. Pedro eta Sta. Marina elizak berreikiratzeari ekiteaz batera, jauregi etxeak altxatuko dira bai hiribilduaren arrabalean eta bai handik kanpo ere, eta hirigunea trinkoagoa egingo da; Olaso, Ondarza eta Arrese dorretxeak, edo Ozaeta eta Eguino-Mallea jauregiak

iharduera sutsu horren adibide adierazgarriak ditugu.

XVI. mendeko arkitekturgintzaren garai oparoarekin batera, eskultura ere, maila apalagoan baina, iharduera eskultoriko garrantzitsu bat gertatzen da, pintura eta dekorazio-arteak, lurralde honetan gutxi landuak, inportatuak izango diren bitartean (S. Pedron gordetzen den poliptiko bikaina Bergarako arte-ondarea aberasteko modu honen piezarik puntakoena da). Arkitekturgintza izango da, beraz, Errenazimendua bizitasun eta indar haundiagoz agertuko den arloa, eta halako moduz gertatuko da hori non estilo berri honen formek bizirik jarraituko bait duten oraindik zonalde batzuetan barrokismoa garaile atera den unetan ere.

M. J. Aranburu
Jesus Gil Masa

ZAPELAITZ

Taberna

Eguneko menuak
astelehenetik ostiralera

San Lorenzo 25, BERGARA

Garnish

BEHERAPENAK: %30

Bitxitegia, boltsak,
gerrikoak,...

San Pedro 12, Tfnoa: 76 03 57

INGELES FRANTSES



UNEDen

92 - 93 ikasturtea

Klaseak: goizez eta arratsaldez


Matrikula: Irailaren 10etik aurrera

Informazioa: UNEDen (3. pisuan), 4etatik
8etara. ☎ 76 13 42.

Kurtso hasiera: urriak 1



UNAI ETXEBERRIAK jaso du aste honetan ZUBIKUAK emandako saria.



Hurrengo Galde Debaldeko saria ASKASIBAR JATETXEAk emango du.

Galde Debalde

Aste honetako galdera:


Badator Ameriketa "aurkitu" zeneko 500. urteurrena ere. Denboraldi batean urteurren honekin lotutako galderak egingo ditugu beti ere Bergara eta bergararrek lotuta.

Bergaran Erret Mintegia edo "Real Seminario de Nobles" sortu zen garai berean euskaldun multzo bat Mexiko hirian bildu eta Bergarako eskolaren antzerako zerbait eraikitzea erabaki zuten. Eskola horrek gaur ere jarraitzen du bere lana egiten orduko izen berearekin.

Nola du izena Mexikoko ikastetxe horrek?



OHARRA: Asmatzailerik azalduko ez balitz, hurrengo GALDE DEBALDEN bi sari egongo lirateke



Barrenkale, 3 • BERGARA • telf.: 943-765919

**Pintxoak, eguneroko menua eta
karta bereziak ditugu
Betiko eta oraingo sukaldaritza**



ARGAZKI

Barrenkale 16, Tfnoa: 76 20 66

GALDE DEBALDE

Unai Etxeberria

Aurreko GALDE DEBALDEko erantzun zuzena hau zen: Angiozarko elizaren atarian bi aingeru daude musika tresnak jotzen, batak **TRONPETA** eta besteak **BIBOLINA**.

UNAI ETXEBERRIA izan da aste honetako irabazlea.

ZORIONAK !!

Eta besteok animatu, eta erantzuna eman aste honetako galderari!



HERRAN

ETXEA

Elektragailuak
T.B. - Bideoak - HI FI
Sukaldeko Altzariak

Matxiategi 3 Tfnoa: 76 12 22 BERGARA



JANTZIDENDA

Barrenkale 24, Tfnoa: 76 10 16



Saskibaloia lanean

Talde nagusiak Hirugarren Maila Nazionalen jokatu du

Bergara K.E.ko senior gizonzkoen saskibaloia taldeak larunbatean eman-gio hasiera aurtengo liga txapelketari arratsaldeko 6 t'erdietan Kiroldegian Beasainen aurka jokatu duen partiduan. Joan den denboraldian igoera lortu ondoren, Txiki Oyarzabalek Asier Ziarsoloren laguntzaz entrenatzen dituen mutilak 3. mailan izango ditugu aurten. Txikiren esanetan, «ez dakigu zehatz mehatz zer nolako talderen kontra jokatu beharko dugun eta beraz transizio denboraldia izango da ho-

nako hau, ea zer gertatzen den».

Jokalariei dagokienez ia ez da aldaketarik egon eta

tuko dute: Iñaki Martinez, Mikel Etxeberria eta Alex Gardoki baseak; Oscar Rodriguez eta Francisco

Aurtengo hau transizio denboraldia izango da saskibaloia talde nagusiarentzat

bi baja egon badira ere (Asier Ziarsolo eta Xabier Mujika), Oscar Rodriguez eta Alex Gardoki izan dira fitxaje berriak. Plantilla honako jokalariei hauek osa-

Herzog eskoltak: Mikel Garitano, Fernando Moreton eta Antonio Muñoz hegalekoak eta, azkenik, pivotak Angel Iñarra, Amadeo Corrius, Aniotz Gabi-

londo eta Iñaki Arbulu, delegatu lanak Karmelo Kalboetxeagak beteko dituzlarik.

Erronka berri bat

Bergara Ibili (patrozinadore berria) taldeak Gipuzkoa, Bizkaia, Araba, Nafarroa eta Errioxako taldeen kontra jokatu beharko du, eta Txiki esaten duen bezala, «taldeen mailak asko hobetzen du 3. mailan, preferentzearekin konparatuz. Ez daukagu talde indartsuegia. Aurten egin dugun fitxaketarik onena, Angel Mari Iñarrak gurekin jarraitzearena izan da, arrasatearrek eraman nahi zuten eta».

Guztira, 2 taldetan banatutako 20 talde dira eta bidaiak egin eta arbitroei ordaintzeko senior gizonzkoen aurrekontua 800.000 pta.koa da.

Zazpi talde

Bergara K.E.ko saskibaloia saila 7 taldez osaturik dago eta aurrekontua 2 milioi t'erdi pezetatakoa da. Senior gizonzkoen gain, hauek dira gainontzeko taldeak eta beren entrenatzaileak: gizonzkoetan, jubenilak (Jose Ignacio Familiar), kadeteak (Herrero) eta eskolarrak (Ismael) eta emakumezkoetan, berriz, 2. mailako seniorra (Antonio Ot eta Xabier Mujika), jubenila (Ramon) eta kadetak (Maria Romera).

**Kiroldegiko
Taberna**



Labegaraieta Tfnoa: 76 56 41

BOLINTXO

*Kirola egiteko
behar den guztia*

Ibargaral 10,
Tfnoa: 76 38 32

Siaska

*Dena zure
haurarentzako*

Pedro Deuna 10, Tfnoa: 76 10 39



"Enseñanza"ko ikasle taldea

Hara hor formal-formal hogeitamar neskatila erretratistak «klik» noiz egingo zain. «Enseñanza»-ko ikasle talde bat da. Garai hartan, 1.972an, zortzi-bederatzi urte izango zituzten. Horra hor nortzuk diren, ezkerretik eskumara:

Atzeko ilaran: Bendición Torres, Merche Viveros, Purificación Mellado, Monica Otazua, Mari Jose Orbea Jaione Larrañaga, Marian Lizarralde, Elena Odríoizola, Juanita Trujillo eta Maite Larrañaga.

Erdiko ilaran: Ane Moñux, Irune Payros, Ana Maria Dovaio, Maite Maiztegi, Alicia Urrutia, Amaia Linazisoro Agurtzane Olabarria, Rosa Maria Linzoain eta Agurtzane Labaien.

Aurreko ilaran: Esther Orobengoa, Raquel Rodriguez, Maria Puy Ruiz, Mila López, Beatriz Moretón, Ana Mujika, Arantzazu Gallastegi, Nerea Luarizaristi, Mari Jose Larrañaga, Inmaculada Zabaleta eta Maite Larrañaga.

*Estepan Plazaola
Argazkia: Elena Odríoizola*



u m e l a g a

JATETXEA

San Antonio 5 BERGARA
Tfnoa: 76 20 21

Iturkintz Berri

INSTALAZIOAK:

- Iturkintza
- Berogintza
- Gasa

Tfnoa:
76 28 04

ETXEBIZITZA

Lokal bat alokairuan Irizar 2an.
☎ 76 13 32 / 76 25 97.

Sarriko inguruan pisua hartu nahi nuke eta jende bila nabil. ☎ 76 32 85. (Ivan).

Bergaran herriaren erdialdean ileapaldegia alokatzen da. ☎ 76 16 17.

Pisua salgai Koldo Eleizalden. ☎ 76 58 23.

Andereño batek pisua hartuko luke alokairuan. ☎ 65 00 25.

Artekalen pisua salgai ☎ 76 55 63. Gauzez.

Garajea salgai Espalolian. ☎ 76 01 95.

Pisua hartuko nuke alokairuan. ☎ 76 03 31.

Amaran (Donostia) etxe bat betetzeko bi neska nahi ditugu. ☎ 76 34 22.

Espalolan garajea salgai ☎ 76 23 27.

Pisua salgai Martokuan: bi gela, saloia, sukaldea, bainua eta trasteroa. ☎ 762402 / 94-658 24 68.

Zaragozan pisu bat osatzeko neska euskaldun bat behar dugu. ☎ 75 19 98 / 79 28 71.

Etxe bat alokatzen da, San Antonion. ☎ 75 21 39.

Pisua konpartituko nuke Matxiategin beste pertsona batekin ☎ 76 24 57.

Pisua hartuko nuke alokairuan. ☎ 76 03 31.

Pisua salgai Ozaeta 6an. Amueblatua edota amueblatu gabe. ☎ 76 40 67.

Taberna alokatuko nuke ☎ 76 53 73.

SALDU-EROSI

1.992-93 ikasturterako, egunero Donostiarra joan-etorria egiteko, autobusa bete nahi dugu. Interesatuta bazaude deitu 77 00 65era.

Bigarren eskuko futbolin eta bilarrak salgai. ☎ 76 12 00 / 45 21 93.

3 atedun Opel Corsa 1.300 GTa salgai (SS-X). ☎ 76 05 92 (gauzez).

Matrimonio logela bateko altzarriak salgai. ☎ 76 44 27 (gauzez).

Ingeles kurtso bat kasetetan erosiko nuke. ☎ 76 54 26.

XR 2 I kotxea salgai. 2 urte, berri-berria. 55.000 Km. SS-AG. ☎ 76 55 80.

Elektragailuak (garbigailua, hozgailua...) erosiko nituzke ☎ 76 17 85.

Gasteizera egunero joateko kotxe bila gabiltza ☎ 76 31 55. (Aitor)

Kitarra akustikoa salgai (15.000). ☎ 76 11 89.

Berogailu japoniar bat salgai. ☎ 76 50 12.

Peugeot 205 XL bat salgai. 6 urte SS-W. ☎ (945) 27 92 73 (arratsalde) / 76 05 25 (gauzez).

Petrolozko estufa salgai. ☎ 76 50 05.

LANA

Arratsaldetan galxoak eta edadetuak zaintzen lan egingo nuke. ☎ 76 46 90.

Emakumezko batek haurrak zaindu eta etxeko lanak egingo lituzke. ☎ 76 36 06 (Marisol).

Mutil batek kalitatezko ilustrazioak, erretratuak, irudiak etab. marraztuko lituzke ☎ 76 25 59.

Etxeko lanak egin eta umeak zainduko lituzke neska batek ☎ 76 06 98 (Amaia).

Neska bat behar da etxeko lanak egiteko. ☎ 76 31 58.

Neska batek etxeko lanak egin edota umeak zainduko lituzke. ☎ 76 57 38.

Neska batek etxeko lanak egin eta umeak zainduko lituzke. ☎ 76 45 53.

Hildakoak

Lourdes Barrera Aspiazu
Irailak 19, 78 urte
Maria Teresa Gallastegi Kortazar
Irailak 20, 59 urte

Jaiotakoak

Amaia Azpeitia Garitano
Irailak 13
Ana Maite Sesma Elorza
Irailak 15
Jon Frias Gomez
Irailak 18
Xabier Gabilondo Ansorena
Irailak 20

AUTOPULLMANS ARABA

Autobusak

Eskurtsioak eta bidaiak edozein tokitara

ANGIOZAR Tfnoa: 76 55 70

DENA 100

pzta.tan

Ireki berria

SIMON ARRIETA 3an

JAKINA

BAINUAK • ZERAMIKA • SUKALDEAK



MANGADO
Y OCHOA

ZERAMIKA ETA SANITATE GAIAK



SUKALDEKO ALTZARIGINTZA

San Lorenzo Poligono Industriala, Amillaga 10, behea. Tfnoa: 76 03 30 • Faxa: 76 02 91. BERGARA

1.992-93 IKASTURTEA

San Martin enparantza, z/g
BERGARA

UNED

Ikastaroak

EUSKAL KULTUR
DEPARTAMENDUA

Telefonoak:
76 13 42 - 43

E.G.A.

MATRIKULA EPEAK:

Irailaren 8tik 30era

TASAK: 23.900 pzta.

NOIZ: Ostegun eta asteazkenetan
6.30etatik 9.30etara.

Larunbatetan, 9etatik 1.30etara

SAKONTZE MAILA

MATRIKULA EPEAK:

Irailaren 8tik 30era

TASAK: 29.000 pzta.

NOIZ: Larunbatetan, 9etatik
1.30etara

DIALEKTOLOGIA

MATRIKULA EPEAK:

Urriaren 19tik azaroaren 7ra

TASAK: 10.000 pzta.

NOIZ: Ostegunetan, 7etatik
9.30etara.

IRAKASLEA: Xabier Pardo.

BERGARAKO EUSKERA

MATRIKULA EPEAK:

Urriaren 19tik azaroaren 7ra

TASAK: 8.000 pzta.

NOIZ: Asteazken eta ostegunetan,
7etatik 9etara.

IRAKASLEA: Juan Martin Elexpuru.

EUSKAL HIIZKUNTZALARITZAREN INGURUKO IHARDUNALDIAK

MATRIKULA EPEAK:

Azaroaren 16-tik abenduaren 19ra.

TASAK: 15.000 pzta.

NOIZ: 1.993ko urtarrilaren 16tik apirilaren 10era.